

### 1. Helburua

Lehiaketa honen helburua La Fundación-eko familiek fundazioak antolatzen dituen ekimenetan parte-hartzea sustatzea da.

### 2. Parte-hartzaileak

5 urte eta 11 urte bitartean dituzten La Fundación-eko **titularren seme-alabak** parte hartu dezakete (biak barne). Seme-alabak La Fundación-aren datu basean onuradun bezala alta emanda egon beharko dira.

### 3. Aurkeztu behar diren dokumentuak

a) Parte hartzeko **eskaera-orria beteta eta sinatuta** egon beharko da. Eskaera-orria lehiaketaren oinarriekin batera web orrialdean dagoena da, edo parte hartzeko webgunearen formularioa bidali.

b) **Marrazkiaren gaia "Gabonak"** izan behar da, eta **La Fundación-arekin lotuta izan beharko du**. Paper edo kartulina zuri batean aurkeztu behar da, DIN A5 (DIN A4 erdia) formatuan.

Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu dezake.

Beharrezkoa izango da lanak imprimatze arazoak saihesteko tolestuta ez egotea irabazlea gertatzekotan.

### 4. Aurkezteko lekua eta epea

Marrazkiak aurkezteko moduak:

- **Posta elektronikoz:** [concursonavidad@lafundacion.com](mailto:concursonavidad@lafundacion.com). Kasu honetan, irabazlea izatekotan jatorrizko marrazkia eskatuko da argitaratzeko.
- **Posta arrunta erabiliz:** Fundación Laboral San Prudencio. Dato 43 Klean (01005). Vitoria-Gasteiz.
- **Web-orrialdea:** webgunearen formularioaren bitartez.

### Kasu guztietan, erreferentzia jarri beharko da: '2020ko Gabonetako Postal Lehiaketa'.

Postalak entregatzeko epea **azaroaren 25ean** amaituko da, ordua 24etan. Epez kanpo aurkezten diren marrazkiak ez dira kontuan hartuko.

### 5. Irabazleen hautaketa

Epaimahaiak irabazleak hautatuko ditu eta gehiengo sinplez egingo da, eta berdinketarik egotekotan, Presidenteak kalitateko botoa izango du. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

### 6. Esleitzeko irizpideak

Originaltasuna, sormena, gauzatzea eta aurkezpena sarituko dira.

### 7. Sariak

#### **2 sariak adinaren arabera**

Saria - 5 urtetik 8 urterainoko modalitatea

Saria 200 €-ko balioa duen opari-txartela izango da, kirol, jostailu, elektronika, teknologia gai eta abarrekin trukatu ahal izango dena, gainera diploma batekin eskuratuta.

Saria - 9 urtetik 11 urterainoko modalitatea

Saria 200 €-ko balioa duen opari-txartela izango da, kirol, jostailu, elektronika, teknologia gai eta abarrekin trukatu ahal izango dena, gainera diploma batekin eskuratuta.

#### **50€ tako 3 bonoren zozketa Caype dendan gastatzeko**

50€ko 3 bonoren zozketa egingo da oinarriak betetzen dituzten haurren artean Caype dendan gastatzeko.

Irabazlearen titularrari telefonoz komunikatuko zaio horren berri. Sariak La Fundación-aren egoitzan emango zaizkie haur irabazleei. Fundazioan lan egiten duten gurasoen seme-alabek eta epaimahaiko kideen seme-alabek ezingo dute oparirik eskuratu eta ezingo dute parte hartu Caypeko bonoen zozketan.

### 8. Hedatzea

**Marrazkia, bi irabazleen artean La Fundación-ek irizpide estetikoak eta formatuak ezagututa erabakiko duena, 2020ko Gabonetako postalaren oinarria izango da.** La Fundación-ak marrazki guztien gaineko eskubide eta jabetza beretzat gordetzen du, bere webgunean, aldizkarian edo egokitzen jotzen duen beste edozein komunikazio bidetan hedatu ahal izateko.

### 9. Oinarrien onarpena

Lehiaketan parte-hartzeak oinarrien onarpen osoa baieztatzen du.

**200€  
PREMIO  
5-8 urte**

**GAINERA, BALDINTZAK BETETZEN  
DITUZTEN HARTEAN 50€tako 3 BONU  
CAYPEN ZOZKETA BAT EGINDA DA**

**200€  
SARIA  
9-11 urte**